



I. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK, ARABAKO FORU ALDUNDIKO LANPOSTUAK LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO

1.- XEDEA

Lehiaketa honen xedea da Arabako Foru Aldundiko (AFA) funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzea. Lanpostu horiek II. eta III. eranskinetan jasota daude.

Lehiaketa merezimendu orokorrekoa izango da deitutako lanpostuetarako, baldin eta haien egitekoek ez badute eskatzen ezagutza edo trebetasun espezifikoak baloratzea, eta merezimendu espezifikokoa, baldin eta kasuan kasuko lanpostuari adjudikatutako egitekoek eskatzen badute ezagutza edo trebetasun espezifiko batzuk baloratzea proba bat eginez.

Deialdi honek ez dauka ondore faserik adjudikatu ez diren eta deialdian sartuta dauden lanpostuekin, ez eta lehiaketa ebatzi ondoren hutsik geratzen direnekin ere.

2.- PARTE HARTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK

2.1 Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute AFako karrerako funtzionarioek, baldin eta, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean, deialdiko lanpostuak betetzeko oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte eta administrazio egoera hauetakoren batean badaude:

2.1.1.- Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean jasotako lanpostua gordetzeko eskubidea duen beste administrazio egoeraren batean.

2.1.2.- Lanpostua gordetzeko eskubiderik ematen ez duten administrazio egoerak, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuko egoerak, eginkizun gabetze ez-irmoa, baldin eta egoera horietan emandako denbora bete bada. Kasu horietan, karrerako funtzionarioak zerbitzu aktibora itzuliko dira lanpostu bat adjudikatzen bazaie.

Adjudikatutako lanpostuez jabetu arte bete beharko dira betekizunak.



2.1.3 Talde bereko edo desberdineko eskala edo azpieskala bi edo gehiagoko lanpostua duten funtzionarioek horietako bakar batean baino ezin izango dute parte hartu lehiaketan.

2.2 Ezin izango dute lehiaketa honetan parte hartu hauek:

2.2.1 Eginkizun gabetze irmoan dauden funtzionarioak, egoera horrek irauten duen bitartean.

2.2.2 Lanpostu erreserbarik gabeko administrazio egoeran egonik, lanera itzultzeko lege eskatzen den gutxieneko denbora igaro ez duten langileak.

2.2.3 Aurreko bi urteetan lehiaketa bidez edo karrerako funtzionarioan sartuta lortutako lanpostu batez jabetu diren funtzionarioak, edozein dela ere lanpostuaz jabetu diren jatorrizko administrazioa edo zein kidegotatik parte hartzen duten. Denbora muga hori ez da aplikatuko baldin eta langileak lehiaketa bidez lortutako lanpostuaren atxikipena galdu badu lanpostutik mugiarazi dutelako edo lanpostua ezabatu dutelako.

2.3 Lehiaketa honetan parte hartu beharra izango dute hauek:

2.3.1 Behin-behineko atxikipena duten funtzionarioak behartuta daude, egoera horretan dauden bitartean, lehiaketa honetan parte hartzera bere eskala, azpieskala eta, hala badagokio, mailakoak diren lanpostuak betetzeko. Parte hartu arren destinorik lortzen ez badu eta lekuz aldatzen bada, bere eskala, azpieskala eta, hala badagokio, mailako lanpostu huts bati atxikiko zaio behin-behinean.

Behin-behineko destinoa duten langileek lehiaketan parte hartu ez badute, beren eskala, azpieskala eta, hala badagokio, mailako lanpostu bat adjudikatuko zaie, ofizios eta behin betiko, deialdian eskainitako lanpostuen artean, lehiatzaileek eskatutako eta lortutako lanpostuak adjudikatu ondoren.

Lehenik eta behin, lehiaketan parte hartu arren destinorik lortu ez duten funtzionarioak atxikiko dira, eta, bigarrenik, lehiaketan parte hartu ez duten funtzionarioak.

Lanpostua kendu edo lanpostuaren edukia gerora aldatu izanaren ondorioz lanpostu gabetu edo lanpostuz aldatuak izan diren eta behin-behinean lanpostu batera atxikita dauden funtzionarioek lehentasuna izango dute lehiaketa honetan kendu edo aldatu zen lanpostuaren maila bereko edo beheagoko destino-osagarriaren maila duten eta herri berean dauden lanpostu hutsak betetzeko. Lehiaketa honetan behin betiko lanpostua



lortzeak ez du eragotziko datozen bi urteetan deitzen diren lehiaketa espezifikoetara aurkeztea.

Lehentasun eskubidea daukaten bi pertsona edo gehiago aurkezten badira lanpostu batera, merezimenduak baloratuko dira eta puntuazio handiena lortzen duenari adjudikatuko zaio.

3- PARTE HARTZEKO ESKAERAK

3.1 Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek parte hartzeko eskaera bat aurkeztu beharko dute, inprimaki elektronikoaren atal guztiak betez. Inprimaki hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri (helbidea), eta haren eredua IV. eranskinean dago.

3.2 Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da, eta, bertan, lortu nahi diren lanpostuak zerrendatuko dira, lehentasun ordenaren arabera. Parte hartzeko eskaera bat baino gehiago aurkezten bada, eskaerak aurkezteko epearen barruan aurkeztutako azken eskaera baino ez da baliozkoa izango eta izapidetuko da. Epe hori amaituta, ez da aldaketarik onartuko eskatutako lanpostuen lehentasun ordenan, ez eta alegatutako merezimenduetan ere, eta, beraz, egindako omisioak edo akatsak ezin izango dira zuzendu.

Lehiakideek deialdi osoan parte hartzeari uko egin ahal izango diote, baldin eta lehiaketaren merezimenduen behin-behineko balorazioaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitu baino lehen aurkezten badute horretarako eskaera. Ez da onartuko eskatutako lanpostu batean edo gehiagotan partzialki atzera egitea. Lehiaketan parte hartu duten eta lanpostu bati behin-behinean atxikita dauden pertsonak ezin izango dute atzera egin.

3.3 Lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera, ofizioz baloratu ezin diren merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, eta ezin izango da AFaren administrazio artxiboetan daudela alegatu.

Lanpostu bat behin-behinean adjudikatzen zaien pertsonak alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte, ezartzen den epean eta moduan, 3.6.2 oinarrian xedatutakoa alde batera utzi gabe.

3.4 Desgaitasunen bat duten funtzionarioek lehiaketan parte hartzeko eskaera orriarekin batera adierazi ahal izango dute eskatzen dituzten lanpostuak egokitze beharra.



Balorzio Batzordeak beharrezko deritzon informazioa eskatu ahal izango dio interesdunari eskatu duen egokitzapenaz, bai eta eskumena duten organo teknikoan irizpena ere lanpostu horren egokitzapenaren egokitasunari eta eginkizun eta egitekoekiko bateragarritasunari buruz.

3.5 Eskaerak aurkezteko epea.

Parte hartzeko eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, deialdia eta haren oinarriak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ondorio horietarako, larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotakoak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Salbuespen gisa, epe horretan bertan aurkeztu ahal izango da parte hartzeko eskaera, IV. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, 3.3 apartatuan adierazitako dokumentazioarekin batera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein erregistrotan, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzenduta.

3.6 Merezimenduak egiaztatzea.

3.6.1 Ofizioz baloratuko diren merezimenduak:

Lehiaketan parte hartzeko eskaeran ez da beharrezkoa izango ofizioz baloratuko diren merezimendu hauek alegatzea edo egiaztatzea:

- a) AFAn betetako lanpostuetan egotea.
- b) Norberaren gradu finkatua.
- c) AFAk aitortutako antzintasuna.

3.6.2 Ofizioz baloratuko ez diren merezimenduak:

Eskaerak aurkezteko epearen barruan alegatu eta egiaztatu beharko dira titulu akademikoei, prestakuntza ikastaroei eta euskaraz bestelako hizkuntza ezagutzei dagozkien merezimenduak. Bestela, ez dira baloratuko.

Giza Baliabideen Zerbitzuak parte hartzaileek alegatu eta egiaztatutako titulu akademikoak egiaztatu ahalko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen datu bitartekaritzarako plataforman (NISAE) kontsulta eginez, 3.3 oinarrian xedatutakoa alde batera utzi gabe.



Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz egiaztatuko dira.

3.7 Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutza beti alegatu beharko da lehiaketan parte hartzeko eskaeran.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) egiaztatzen diren hizkuntza eskakizunak ofizioz baloratuko dira, eta ez da beharrezkoa izango parte hartzeko eskaerarekin batera egiaztagiria aurkeztea. Horretarako, oinarri hauek ALHAOn argitaratu aurretik erregistro horretan inskribatutako hizkuntza eskakizunak egiaztatutzat joko dira.

Aipatutako erregistroan inskribatuta ez dauden hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko, parte hartzeko eskaerarekin batera egiaztagiria aurkeztu beharko dira, eskaerak aurkezteko epearen barruan.

3.8 Merezimendu orokorrak baloratzeko erreferentzia data.

Merezimendu orokorrak baloratzeko, deialdia ALHAOn argitaratzen den eguna hartuko da kontuan.

Proba bidez egiaztatzen diren merezimendu espezifikoetarako, erreferentziako data deialdian aurreikusitako probak egin arte atzeratuko da.

4.- ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDIA.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak, deialdi honen 2. oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, foru agindu bat emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesteko, eta zerrenda horren aurkako erreklamazioak aurkezteko 5 egun balioduneko epea irekiko da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda. Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da.

5. - LANPOSTUAK BETETZEKO ORGANO TEKNIKOAK.



Proba espezifikoa egitea aurreikusten ez den lanpostuak betetzeko, deialdia betetzeko organo teknikoa balorazio batzorde batek osatuko du. Batzorde horretako kideak lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak izendatuko ditu, deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onesten dituen foru agindu berean.

Proba espezifikoa egitea aurreikusten den lanpostuak betetzeko, horretarako eraturako batzorde espezifikok baloratuko dituzte merezimendu orokorrak eta espezifikoa.

Balorazio batzordeek kide kopuru bakoiti bat izango dute, gutxienez bost, eta honako ardura hauek izango dituzte: deialdian jasotako merezimendu orokorrak eta, hala behar izanez gero, espezifikoa baloratzea; hala badagokio, lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari proposatzea lanpostuak lehiakideei adjudikatzea; eta, oro har, oinarri hauek betetzen direla bermatzea.

Balorazio batzordeek hautaketa prozesuko edozein unetan eskatu ahal izango dituzte alegatutako merezimenduen jatorrizko ziurtagiriak.

Balorazio batzordeek inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioak errespetatuz jardungo dute, eta trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izango da, non eta ez den behar bezala justifikatzen ezinezkoa dela. Ordezkaritza orekatutzat joko da batzordean sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza izatea.

Balorazio batzordeetako kideak karrerako funtzionarioak izango dira, eta deitutako lanpostuetan eskatzen den titulazio taldeko azpieskala bereko edo handiagoko batekoak izango dira, eta organo horietako kide batek, gutxienez, prestakuntza eta esperientzia izan beharko du enplegu publikoko hautaketan.

Balorazio batzordeetako kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Batzordeek kanpoko aholkulariengana jo ahal izango dute, merezimenduak baloratzeko iritzi aditu batera jotzea egoki dela jotzen dutenean. Aholkulari horiek hitza izango dute, baina botorik ez, beren espezialitateko gaietan.

Balorazio batzordeak deialdiko oinarrietan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan jasotakoari egokituko dio bere jardura, eta deialdiko oinarriak aplikatzean edo bertan jasotzen ez diren kasuetan sor daitezkeen zalantzak argituko ditu.



6.- LEHIAKETA AURRERA ERAMATEA

Lehiaketak fase hauek izango ditu: A) Merezimendu orokorren fase bat II. eta III. eranskinetan zerrendatutako lanpostu guztietarako, eta B) III. eranskinean zerrendatutako lanpostuetarako merezimendu espezifikoaren fase gehigarri bat. Merezimendu espezifikoaren faseari dagokion proba merezimendu orokorrak baloratu aurretik egin ahal izango da.

6. A. Merezimendu orokorrak

Fase horretan, gehienez, 13 puntu lortu ahal izango dira. Balorazioa honela egingo da:

Arabako Foru Aldundian egindako lanaren balorazioa.

Gehienez ere, 4,25 puntu lortu ahal izango dira.

Balorazio hori egiteko, kontuan hartuko da identitatea eta antzekotasuna hautagaiek bete dituzten lanpostuen eduki teknikoaren (eginkizunak eta zereginak) eta eskatutako lanpostuen artean.

Balorazioak ez dira metagarriak. Lan egindako aldi bakoitza honako apartatu hauetako bakar batean baloratuko da, dagokionaren arabera:

- a) 0,05 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 4,25 puntu, bete beharreko zeregin eta eginkizunak kontuan hartuta, lehiatzen den lanpostuaren eduki tekniko bereko lanpostuetan egindako lanagatik.
- b) 0,025 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 3 puntu, lehiatzen den lanpostuaren eduki teknikoa eta lanean egondako lanpostuena antzekoa denean.
- c) 0,010 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 1,5 puntu, titulazio talde eta azpitalde berberari dagozkion lanpostuetan egindako lanagatik.

Gehienez ere, 3 puntu lor daitezke b) eta c) ataletako emaitzak batuta.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betez, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek baloratuko dira: lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko



edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez bateratzeko lanaldi murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero indarkeriagatik baimenak baliatzen.

6.A.2 Antzinatasuna

AFAk aitortutako antzinatasuna hartuko da kontuan. Gehienez, 3,5 puntu lor daitezke, hain zuzen, 0,0004 puntu lanean egindako egun bakoitzeko.

Norberaren gradu finkatuaren balorazioa

Gradu finkatuarengatik 1,5 puntu emango dira gehienez ere, honako honen arabera:

- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila altuagoa edo are altuagoa: 1,5 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat altuagoa: 1,25 puntu
- Eskatutako lanpostuaren maila berdina: puntu 1
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat baxuagoa: 0,75 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila baxuagoa: 0,50 puntu

Titulu akademikoak

Lehiatzen den lanpostua lortzeko beharrezkoak direnez bestelako ikasketa titulu ofizialak baloratuko dira, lanpostu horren eginkizun arloarekin duten lotura kontuan hartuta, gehienez 2 punturaino, ondorengo baremoaren arabera:

- Doktore titulua: 1,50 puntu.
- Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo gradu gehi master baliokidea: 1,25 puntu.
- Ingeniaritza teknikoa, unibertsitateko diploma, arkitektura teknikoa edo gradu baliokidea: puntu 1.
- Unibertsitateko master ofizial eta homologatuak, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) dagokien idazpenarekin: 0,75 puntu.
- Goi mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea: 0,50 puntu.
- Erdi mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea: 0,25 puntu.

Ez dira baloratuko lanposturako nahitaezkoa den titulua lortzeko behar diren titulu apalagoak, ez eta merezimendu gisa baloratutakoak ere. Era berean, ez da baloratuko lehengo unibertsitateko diplomatura edo ingeniaritza tekniko edo arkitektura teknikoko erdi mailako titulazioen egokitzapen ikastaro baten bidez lortutako gradu titulua, ikasketa berdinei dagokienez.



Titulazio azpitalde desberdinetara irekitako lanpostuetan ez da baloratuko goi mailako azpitaldera sartzeko eskatzen den titulazioa.

6.A.5.- Prestakuntza ikastaroak

Eskatzen diren lanpostuen berezko eginkizunekin edo horietan jarduteko eskatzen diren trebetasunekin lotura duten gaitan jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak balioetsiko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu aurreko 10 urteetakoak. Ez dira sartuko atal honetan hizkuntza ikastaroak.

- A1, A2 eta A1/A2 (A eta B taldeak) azpitaldeetara irekitako lanpostuak:
 - Masterrak, diplomak eta berezko unibertsitate tituluak, 300 ordukoak edo handik gorakoak: 0,75 puntu.
 - Masterrak, diplomak eta berezko unibertsitate titulu eta ikastaroak, 200 ordukoak edo handik gorakoak: 0,50 puntu.
 - 100 ordu edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak: 0,25 puntu.
- A2/C1 azpitaldeetara irekitako lanpostuak:
 - Masterrak, diplomak eta berezko unibertsitate titulu eta ikastaroak, 200 ordukoak edo handik gorakoak: 0,50 puntu.
 - 100 ordu edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak: 0,25 puntu.
 - Gutxienez 50 orduko iraupena duten ikastaroak: 0,15 puntu.
- C1, C2 eta C1/C2 azpitaldeei, talde profesionalei eta C2/TPei (C, D eta E taldeak) irekitako lanpostuak:
 - Gutxienez 100 orduko iraupena duten ikastaroak: 0,25 puntu.
 - Gutxienez 50 orduko iraupena duten ikastaroak: 0,15 puntu.

Iraupena ECTS kredituetan adierazten den kasuetan, kreditu bakoitzeko 25 orduko balorazioa egingo da. Kreditu bakoitzeko 10 ordu baloratuko dira, beste zehaztapenik ez dagoenean.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua edo kredituak zehaztu beharko dira; bestela, ez dira baloratuko.

Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio desberdinak behin bakarrik baloratuko dira, ordu kopuru handiena duen ikastaroari dagokiona.



Ez dira baloratuko ofimatika ikastaroak (Word, Excel, Acess, Power Point, Outlook, Internet), ezta balorazio batzordeak lanerako oinarritzotzat jotzen dituen informatika ikastaroak ere. AFAko informatika aplikazio propioetako prestakuntza ere ez da baloratuko.

Ez dira baloratuko errepikatutako ikastaroak, ez eta segurtasuneko oinarrizkoak ere.

Ez dira baloratuko bukatu gabeko ikasgaiak, kredituak eta ikastaroak.

Atal honetan puntu 1 lortu ahalko da gehienez ere.

6.A.6.- Hizkuntzak

Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen balorazioa, EAEko hizkuntza ofizialak kontuan izan gabe, gehienez, 0,75 puntukoa izango da. Taula honen arabera egingo da:

- B-1: 0,15 puntu
- B-2: 0,25 puntu
- C-1: 0,50 puntu
- C-2: 0,75 puntu

6.B. Merezimendu espezifikoak

Deialdiaren III. eranskinean ezartzen denaren arabera eta lanposturako egokitasuna baloratzeari begira, lanpostuko jardunarekin lotutako proba praktiko bat edo gehiago egin ahal izango da.

Fase horretan, gehienez, 13 puntu lortu ahal izango dira. Bi proba eginez gero, bakoitzak 6,5 puntu emango ditu, eta biak baztertzaileak izango dira.

Ezagutza espezifikoko probak egitetik salbuestea:

a.-Laborategiko analista eta Abeltzaintzako Laborategiko analista lanpostuak. Proba egitetik salbuetsita egongo dira hauetan dauden pertsonak: administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzailea, LH II Kimika, bai eta proba espezifiko bat gainditu ondoren lanpostuan aritu direnak ere.

b.- Zerga ikuskatzaile laguntzailea: Proba espezifiko bat gainditu ondoren Zergen ikuskatzaile laguntzailearen lanpostua bete duten pertsonak ezagutza espezifikoen proba egitetik salbuetsita egongo dira.



c. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko beste lanpostuak, Arabako Lege eta Administrazio Erakundekoak izan ezik. Ezagutza espezifikoetako proba/probak egiteak salbuetsita egongo dira hauetan daudenak: administrazio orokorra, egiteko bereziak eskalak, edo administrazio bereziko teknikarien azpieskalakoak edo eskalakoak, zerbitzu berezien azpieskalakoak, zeregin berezien motakoak, baldin eta nagusiki zerga arloko gai zerrenda duten deialdien bidez sartu badira.

Aurreko apartatueta jasotako kasuetan, lanpostu eta destino berbera eskatzen badute bi pertsonak edo gehiagok, batek edo batzuek proba egin beharrenekin eta beste bat edo batzuk proba egiteak salbuetsita, proba egin beharra daukatenek hura egin eta gainditu ostean, lanpostua adjudikatzeko bakar-bakarrik hartuko dira kontuan merezimendu orokorrak. Lehiatzen direnek proba edo probak egin beharra badaukate, baloratu egingo da bertan ateratako puntuazioa.

7. DESTINOA ADJUDIKATZEKO LORTU BEHARREKO GUTXIENEO PUNTUAZIOA:

Merezimendu orokorrak bakarrik baloratuko diren lanpostuak adjudikatzeko, gutxienez 1,5 puntu lortu beharko dira, euskararen ezagutzaren balorazioa alde batera utzita.

Ezagutza proba/probak egitea merezimendu espezifikotzat jotzen duten lanpostuak adjudikatzeko, gutxienez 1,5 puntu lortu beharko dira merezimendu orokorren fasean, euskararen ezagutzaren balorazioa alde batera utzita, eta, hala badagokio, 6,50 puntu, egiten diren probetan.

8. EUSKARAREN EZAGUTZA

Derrigortasun data iraungita duten lanpostuak eskuratzeko, nahitaezkoa izango da dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea. Hortaz, ez da merezimendu gisa baloratuko euskararen ezagutza.

Gainerako lanpostuetan, euskara merezimendu gisa baloratzeko, eskatzen den lanpostuaren hizkuntza eskakizuna izango da kontuan, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak ezarritakoari jarraiki eta baremo honen arabera:



Lanpostuaren HE	Egiaztatutako HE	Gehieneko puntuazioaren gaineko %	Puntuak merezimendu espezifikoak dituzten lanpostuetan (gehienez 3,575)	Puntuak merezimendu espezifikorik ez duten lanpostuetan (gehienez 1,78)
B1/B1 B2/B2	B2/B2, C1/C1, C2/C2	6,25	1,63	0,81
B1/B1 B2/B2	B1/B1	5,00	1,30	0,65
C1/C1 C2/C2	C2/C2	13,75	3,58	1,79
C1/C1 C2/C2	C1/C1	11,00	2,86	1,43
C1/C1 C2/C2	B2/B2	6,25	1,63	0,81
C1/C1 C2/C2	B1/B1	5,00	1,30	0,65

Hizkuntza eskakizunen aurreko balorazioak ez dira metagarriak. Egiaztatutako goi mailako hizkuntza eskakizunari dagokion puntuazioa baino ez da baloratuko.

9. LANPOSTUAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA.

9.1 Deitutako lanpostuak bete gabe geratu ahal izango dira soilik izangairik ez dagoelako edo eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez delako.

Merezimendu espezifikoak baloratzea dakarten lanpostuetarako lehiaketaren deialdia deitutako gainerako lanpostuekiko modu independentean ebatzi ahal izango da.

9.2 Balorazio Batzordeak Arabako Foru Aldundiaren Enpleguaren Atarian argitaratuko du merezimendu orokorren eta, hala badagokio, espezifikoaren behin-behineko balorazioa, bai eta lanpostuak adjudikatzeko behin-behineko proposamena ere. Bost egun balioduneko epea emango du erreklamazioak egiteko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik balego, argitaratu egingo dira balorazioak eta lanpostuak adjudikatzeko behin betiko proposamenak, lehiakideek, hala badagokio, adierazitako lehentasun ordenaren arabera. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, batzordeak iragarkia argitaratuko du, balorazioa eta adjudikazio proposamena behin betiko bihurtuz.

9.3 Berdinketa hausteko irizpideak.



Merezimenduen balorazioaren emaitzan berdinketarik gertatuz gero, balorazio batzordeak ebatziko du lanpostuak adjudikatzeko, irizpide hauek hurrenez hurren aplikatuz:

- a. Berdinketarik izatekotan, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren lanpostuetan, salbu eta beste izangaiengan sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola lana lortzeko eta lanean sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.
- b. Merezimendu espezifikoak dituzten lanpostuak: Lehendabizi, merezimendu espezifikoen atalean lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan. Berdinketak jarraitzen badu, gainerako lanpostuetarako finkatutako irizpideak aplikatuko dira.
- c. Gainerako lanpostuak: Kontuan hartuko da atalen hurrenkerari jarraituz lortutako puntuazioa:
 1. Egindako lanaren balorazioa.
 2. Titulazio akademikoak
 3. Prestakuntza ikastaroak
 4. Hizkuntzak
- d. Berdinketak jarraitzen badu, ondoko irizpide hauetara joko da, hurrenkera honetan: lehiaketan parte hartzerakoan duen eskala, azpieskala eta klasean karrerako funtzionario gisa antzinasun handiena duena; karrerako funtzionario gisa antzinasun handiena duena; azkeneko behin betiko lanpostuan antzinasun handiena duena, eta administrazioan antzinasun handiena duena.

9.4 Balorazio batzordeak lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko dio deitutako lanpostuak behin betiko adjudikazio proposamena, eta foru agindu bidez onetsiko du proposamen hori, adjudikazio proposamenean sartutako pertsonak lanpostuak betetzeko eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eta ALHAOn eta Enpleguaren Atarian argitaratuko da.

Adjudikazio proposamenean agertzen diren pertsonak ez badute egiaztatzen adjudikatutako lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela,



balorazio batzordeak beste adjudikazio proposamen bat egingo du, baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu ez duten pertsonak kanpoan uzteko.

10. LANPOSTUA UZTEA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA.

Destino berria lortzen duen langileak aurreko lanpostua utziko du deitutako lanpostuak adjudikatzen dituen foru aginduan zehazten den egunean.

Salbuespenez, lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak atzeratu ahal izango du data hori, behar bezala arrazoitutako inguruabarrak gertatzen direnean.

Zerbitzuko arrazoiengatik jatorrizko lanpostua uztea atzeratu zaionari lanpostu berrian egindakotzat kontatuko zaio jatorrizkoa benetan utzi arte igarotzen den denbora.

Lanpostuaz jabetzeko data lehengo lanpostua uzten den egunaren hurrengoa izango da. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lanpostuaz jabetzea lehiaketaren ebazpena argitaratzen den egunaren hurrengo 3 egun baliodunen barruan egin beharko da.

Hala ere, lanpostua gordetzea dakarten administrazio egoeretan parte hartzen duten eta destinoa lortzen duten funtzionarioek parte hartu zuten administrazio egoera berean jarraitzen dutela ulertuko da, salbu eta zerbitzu aktibora itzultzea berariaz eskatzen badute lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epean.

Baimen, lizentzia, opor edo funtzionarioa dagoen beste edozein egoera bukatzen denera arte, hau da, nahiz eta funtzionarioa zerbitzu aktiboan egon bere zerbitzuak benetan ematea eragozten duen edozein egoera bukatzen denera arte atzeratuko da funtzionarioa lanpostuaz jabetzeko eguna. Salbuespenez, behar bezala arrazoitutako arrazoiengatik, horiek etetea erabaki ahal izango da.

Lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko da, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko da, egoera hauetan izan ezik: lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen deialdi publikoaren bitartez beste destino bat lortu izana; gerora sortutako ezgaitasuna; zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera iragan izana; edo bestelako ezohiko zioak, behar bezala justifikatuak eta deialdia egiten duen organoak ontzat emanak.



Lehiaketari buruzko ebazpenak berekin badakar funtzionarioak etxebizitzaz aldatu beharra, behar horrek borondatezko izaera izango du eta funtzionarioak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Lanaldia, lan ordutegia eta gainerako lan baldintzak AFAn aplikatu beharreko araudian lanpostu bakoitzerako adierazitakoak izango dira.

11.- PROZEDURAN EMANDAKO EGINTZEN PUBLIZITATEA.

Lehiaketa hau gauzatzen den bitartean emandako egintza guztiak Arabako Foru Aldundiaren Enpleguaren Atarian (Ataria) argitaratuz jakinaraziko dira, oinarri hauek ALHAOn argitaratzea jasotzen duten egintzak izan ezik.